

Gazteen ARGAZKIAK 2021

24

Euskadi, aurzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



Gazteen **ARGAZKIAK 2021**

24

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1.a, 2022ko apirila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:


Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazio Zuzendaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

ISSN:

2951-6781



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpena – Ez-komertziala – Obra eratorririk gabea 4.0 Unported de Creative Commons (informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Metodologia.....	6
3. Norberaren egoeraren balorazioa	7
3.1. Norberaren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan	7
3.2. Norberaren osasunaren balorazioa	8
3.3. Norbere lan-egoeraren balorazioa	9
3.4. Klase soziala	11
3.5. Iraganeko eta gaur egungo gizarte-maila	12
3.6. Hilabete amaierara iristeko arazoak	13
4. Euskadiko egoeraren balorazioa.....	14
4.1. Euskadiko egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan	14
4.2. Euskadiko arazo nagusiak	15
4.3. Euskadiko egoera ekonomikoaren balorazioa.....	19
4.4. Euskadiko egoera politikoaren balorazioa	21
4.5. Euskadin demokraziak duen funtzionamenduari buruzko poztasuna	23
4.6. Giza eskubideen errespetuari buruzko gogobetetasuna Euskadin	25
4.7. Euskadiko zerbitzu publikoei buruzko balorazio orokorra	26
4.8. Eusko Jaurlaritzaren zenbait arlotako jardueraren balorazioa	32
5. Jarrera eta balio politikoak.....	38
5.1. Politikarekiko interesa	38
5.2. Ezker-eskuin eskalan baloratzea	40
5.3. Euskal nazionalismo edo abertzaletasunaren eskalan kokatzea	42
5.4. Euskal Herriaren independentziarekiko jarrera	44
5.5. Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna	46
5.6. Eusko Legebiltzarrean ordezkapena duten alderdi politikoekiko begikotasuna	48
5.7. Botoa emateko ohitura	50
5.8. Beti alderdi politiko berari botoa ematea	52
5.9. Botoa ematea: eskubidea ala betebeharra.....	54
5.10. Hauteskundeetako emaitzek norberaren bizitzan duten eragina	55
5.11. Politikaren inguruko iritzi orokorrak.....	57
5.12. Euskadiko buruzagi politikoaren ezagutza eta balorazioa	59
6. Balioak eta jarrera sozialak	60
6.1. Seme-alabentzat espero den gizarte-maila	60
6.2. Herri eta hirien segurtasunaren pertzepzioa.....	60
6.3. Pertsonen arteko konfiantza	62
6.4. Erakundeekiko konfiantza	63
7. ONDORIOAK	67

1. Sarrera

'Gazteen Argazkiak' serieko txosten berri hau bildumako 24. zenbakia da, eta bertan 18 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteek politikari eta egoera pertsonalari buruz eta Euskadiko egoerari buruz dituzten iritziak eta jarrerak jasotzen dira.

Gazteen Euskal Behatokiak txosten hau egin du Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak emandako datuetan oinarrituta; zehazki, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2021ean Euskal Soziometroak egiteko inkesta bidez jasotako informazioan oinarrituta.

Kasu batzuetan, aurkeztutako datuak inkesta bakarretik datoz, eta, beste batzuetan, galderak inkesta batean baino gehiagotan errepikatu direnean, txosten honetan eskaintzen diren emaitzak azterlanetan emandako erantzunak batzetik datoz.

Dokumentua lau arlo tematiko nagusitan egituratuta dago: egoera pertsonalaren balorazioa, Euskadiko egoeraren balorazioa, balio eta jarrera politikoak eta balio eta jarrera sozialak. Horietako bakoitzean galdera desberdinak daude, eta horietako asko aurretik ere egin izan dira. Beraz, gazteen iritzien bilakaeraren berri ematen diguten aurretiazko datuak ditugu. Gainera, datu guztiak sexuaren, adin-taldean (18-24 urte eta 25-29 urte) eta bizi diren lurralde historikoaren (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) arabera bereizita aurkezten dira.

Datu horiek biztanleria orokorrari egindako inkestetatik ateratzeak aukera ematen du gazteen (18-29 urte) erantzunak 29 urtetik gorako erantzunekin alderatzeko eta, horrela, gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen artean alderik dagoen ikusteko, eta zer zentzutan.

Horrekin guztiarekin, gazteen iritzien eta jarreraren ikuspegi osoa eman nahi da, ez bakarrik egungo egoeraren argazki bat, baita aurreko urteekiko bilakaerarena ere, eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen iritzi eta jarrerekin konparatzea.

2. Metodologia

Datuak Euskadiko lurralde historiko bakoitzeko 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren lagin adierazgarriei telefonoz egindako banakako elkarrizketetatik datoz. Elkarrizketak hiru alditan egin ziren, 2021ean, Euskal Soziometroak bildumako 73., 74. eta 75. txostenen landa-lanei zegozkienak. Hiru kasuetan, galdera-sorta egituratuaren eta itxien bidez bildu ziren datuak galdera gehienetan.

Elkarrizketatu beharreko pertsonak udalerraren tamainaren arabera prozedura polietapikoaren eta estratifikatuaren bidez hautatu ziren, eta, ondoren, pertsonak hautatu ziren, sexuaren, adinaren eta lan-egoeraren arabera.

Jarraian, informazioa biltzeko aldi bakoitzari buruzko datuak zehazten dira:

- 73. euskal soziometroari dagokion lehenengo kasuan, elkarrizketak 2021eko maiatzaren 17tik 21era bitartean egin ziren, biak barne. 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren laginean 3.333 pertsona elkarrizketatu ziren guztira; horietatik 433 18 eta 29 urte bitarteko gazteak izan ziren. Gazteen lagin horri dagokion lagin-errorea, lagina hertsiki ausazkoa izan zen kasu teorikoan egotz daitekeena, \pm % 1,7koa da Euskadi osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarekin eta $p = q = 0,5$.
- 74. euskal soziometroari dagokion bigarren kasuan, inkesta 2021eko irailaren 27tik urriaren 1era bitartean egin zen (biak barne). 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren lagin osoak 3.333 pertsona elkarrizketatu zituen guztira; horietatik 433 18 eta 29 urte bitarteko gazteak izan ziren. Lagin osoa 3.333 inkestaz osatu zen, eta horietatik 433 18 eta 29 urte bitarteko gazteenak izan ziren. Lagin horren laginketa-errore teorikoa (433 gazte) + % 4,7 da.
- Eta hirugarren kasuan, 75. Euskal Soziometroari zegozkionean, landa-lana 2021eko azaroaren 29tik abenduaren 3ra bitartean egin zen, biak barne. 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren laginean 3.333 pertsona elkarrizketatu ziren guztira; horietatik 433 18 eta 29 urte bitarteko gazteak izan ziren. Gazteen lagin horri dagokion lagin-errorea, lagina hertsiki ausazkoa izan zen kasu teorikoan egotz daitekeena, \pm % 4,7koa da.

Ondoren, hiru ikasketen datu-basea sexuaren, adin-taldearen (18-24 urte, 25-29 urte eta 30 urtetik gorakoak) eta bizi diren lurralde historikoen arabera haztatu da.

Ikerketaren diseinua Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagokio; hark diseinatu zituen galdetegiak eta informazioa biltzea, eta landa-lana kontratatu eta gainbegiratu zuen. Ikerfel enpresak jaso du informazioa, hau da, etxez etxeko inkestak.

Bestalde, emaitzak aztertzea eta txosten hau egitea Gazteen Euskal Behatokiaren ardura da soilik.

3. Norberaren egoeraren balorazioa


3.1. Norberaren egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan

ZURETZAT GARRANTZITSUENAK DIREN GAUZETAN, 0-TIK 10 PUNTUTARA DOAN ESKALA ERABILIZ 0-AK BIZITZA OSO GAIZKI DOAKIZULA ESAN NAHI DU, ETA 10-AK OSO ONGI. ZURE USTEZ, NOLA DOAKIZU BIZITZA GAUR EGUN?

0-10 arteko batez bestekoa	18-29 urte	≥ 30 urte
Balorazioa	7,1	6,9
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

2021ean, gazteek 10etik 7,1eko nota eman zioten une horretan zuten egoerari. Puntuazio hori Euskadiko 30 urteko eta gehiagoko biztanleen artean erregistratutakoa baino zertxobait handiagoa da, batez beste (6,9).

Bestalde, 2001 eta 2021 artean gazteek emandako balorazioen bilakaerak erakusten digu azken hori dela seriean erregistratutako altuenetako bat eta egonkor mantentzen dela 2018tik. Eta 2013az geroztik izandako bilakaerari erreparatzen badiogu, urte horretan jaso baitzen puntuaziorik baxuena, joera oso positiboa dela ikusten dugu.



Ez dago alde nabarmenik sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoen arabera.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen norberaren egoeraren balorazioa, taldeen arabera

MEDIA 0-10	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
		Balorazioa	7,1	7,0	7,1	7,2	7,0	7,1
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

3.2. Norberaren osasunaren balorazioa


ZURE USTEZ, ORO HAR NOLAKOA DA ZURE OSASUNA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	47	22
Ona	42	47
Nahikoa ona	10	25
Txarra	1	4
Oso txarra	0	2
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	2900

Gazte gehienek positiboki baloratzen dute beren osasuna, eta % 11k soilik uste dute hala-moduzkoa edo txarra dela.

30 urtetik gorako pertsonen artean ere gehiengoa dira beren osasuna oso ona edo ona dela uste dutenak (% 69), baina, logikoaenez, gazteen artean baino gutxiago dira.

Gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriak beren osasunari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



18 eta 24 urte bitartekoek 25 eta 29 urte bitartekoek baino hobeto baloratzen dute beren osasuna.

Norberaren osasunaren balorazioa, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	47	46	49	53	43	44	45	52
Ona	42	41	42	40	43	40	44	41
Nahikoa ona	10	13	6	6	12	14	9	7
Txarra	1	0	3	0	2	2	2	0
Oso txarra	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

3.3. Norbere lan-egoeraren balorazioa


ETA ZURE EGUNGO LAN EGOERA NOLAKOA DELA ESANGO ZENUKE?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	21	21
Nahikoa ona	50	50
Nahikoa txarra	19	15
Oso txarra	8	9
Ed/Ee	2	6
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	866	5800

Gazte gehienek positiboki baloratzen dute beren lan-egoera pertsonala, % 71k uste baitu oso ona edo ona dela. Hala ere, % 27k uste du nahiko txarra edo oso txarra dela.

Gazteek beren lan-egoerari buruz egiten dituzten balorazioak 30 urteko eta gehiagoko biztanleek emandakoen oso antzekoak dira.

Gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriak beren lan egoerari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



Kasu honetan ez dago alde handirik sexuaren eta adinaren arabera, baina bai lurralde historikoaren arabera; izan ere, Arabako gazteen artean dago beren lan-egoera oso txarra dela uste dutenen ehuneko handiena (% 20).

Norbere lan egoeraren balorazioa 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	21	19	23	22	21	23	20	22
Nahikoa ona	50	51	48	49	50	46	49	52
Nahikoa txarra	19	20	19	20	19	20	20	18
Oso txarra	8	7	8	6	9	20	9	4
Ed/Ee	2	2	2	3	1	1	2	4
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	866	466	400	326	540	208	376	282

3.4. Klase soziala

ZEIN KLASA SOZIALETAN KOKATZEN DUZU ZURE BURUA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Erdikoa-altua	20	21
Erdi mailakoa	29	34
Erdi mailatik beherakoa	37	32
Ed/Ee	13	13
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	866	5800

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 37 klase sozial ertain-baxuan kokatzen da; % 29 klase sozial ertain-ertainean eta gainerako % 20a maila ertain-altuan. Elkarrizketatutako laginaren % 13k nahiago izan du gizarte-klase batean ere ez kokatu.

Banaketa antzekoa da 18-29 urteko eta 30 urtetik gorako biztanleen artean.

25 urtetik beherako gazteen egoera sozioekonomikoa hobea da 25 eta 29 urte bitartekoena baino. Bizkaiko gazteak ere gizarte-maila ertain-altuan daude, gainerakoak baino gehiago.

Klase soziala 18 eta 29 urte bitartekoen artean, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Erdikoa-altua	20	21	19	25	17	12	27	18
Erdi mailakoa	29	26	34	28	31	35	28	27
Erdi mailatik beherakoa	37	38	35	31	41	37	36	38
Ed/Ee	13	15	11	16	11	16	9	17
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	866	466	400	326	540	208	376	282


3.5. Iraganeko eta gaur egungo gizarte-maila

0 ETA 10 ARTEKO ESKALA ERABILIZ, NON 0-AK MAILA BAXUENA EDO POBREA ADIERAZTEN DUEN ETA 10-AK ALTUENA EDO ABERATSA, NON KOKATUKO ZENUKE ZEURE BURUA GAUR EGUN?, ETA NON KOKATUKO ZENUKE ZURE BURUA HAURRA ZINENEAN?

0-10 arteko batez bestekoa	18-29 urte	≥ 30 urte
Gaur eguneko egoeraren balorazioa	5,7	5,7
Haurra zeneko egoeraren balorazioa	6,2	5,6
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Iraganeko eta oraingo gizarte-mailaren arteko alderaketak 18-29 urteko pertsonen bilakaera negatiboa erakusten digu. Horrela, egungo egoeraren balorazioa 5,7 da 0tik 10era bitarteko eskalan; aldiz, haurra zenean, egungo balioa baino 0,5 puntu handiagoa da egoeraren balorazioa, hau da, 6.2 puntu handiagoa. 30 urtetik gorakoaren artean ia ez dago alderik egungo egoeraren balorazioaren eta haurrak zireneko egoeraren balorazioaren artean.

Gazteen eta 30 urtetik gorakoaren egungo egoeraren eta haurraren egoeraren balioespenaren alderaketa (0-10 eskala)



18-24 urteko pertsonak 25-29 urtekoek baino puntuazio altuagoak ematen dizkiete, bai egungo egoerari, bai iraganekoari.

Norbere kokapena pobrezia-aberastasun eskalan gaur egun eta haurtzaroan, taldeen arabera

0-10 arteko batez bestekoa	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Gaur eguneko egoeraren balorazioa	5,7	5,7	5,8	5,9	5,6	5,6	5,7	6,0
Haurra zeneko egoeraren balorazioa	6,2	5,9	6,5	6,5	5,9	6,2	5,9	6,4
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

3.6. Hilabete amaierara iristeko arazoak

ZUK IZATEN DUZU DIRU ARAZORIK HILABETE BUKAERARA HELTZEKO?

%	18-29 urte	≥ 30 años
Bai, arazo handiak	7	7
Bai, nolabaiteko arazoak	37	24
Ez	56	69
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 7k baino ez du arazo handirik hilabete amaierara iristeko; % 37k arazo batzuk izan ohi ditu, baina gainerako % 56k adierazi du ez duela inoiz arazorik hilabete amaierara iristeko.

30 urtetik gorako biztanleek diote arazo gutxiago dituztela hilaren amaierara iristeko, eta 18-29 urteko pertsonen zailtasun ekonomikoak agerian uzten dituzte.

Argi dago arazo horiek ohikoagoak direla adinean aurrera egin ahala, emantzipatutako pertsona gehiago daudelako. Emakumeek gizonek baino ehuneko handiagoa dute hilaren amaierara iristeko arazoetan, soldata-arrakalaren eta emantzipazio-tasaren ondorioz.

Hilabete amaierara iristeko arazoak dituzten 18 eta 29 urte bitarteko gazteak, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai, arazo handiak	7	8	6	5	9	18	3	4
Bai, nolabaiteko arazoak	37	31	44	31	42	39	37	34
Ez	56	61	50	64	49	43	60	62
Ed/Ee	0	0	1	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	193	240	104	188	141

4. Euskadiko egoeraren balorazioa

4.1. Euskadiko egoeraren balorazioa 0-10 arteko eskalan


0-TIK 10 PUNTUTARA DOAN ESKALA ERABILIZ -0AK OSO GAIZKI ESAN NAHI DU, ETA 10AK OSO ONGI-, GAUR EGUN NOLA DOAZ GAUZAK EUSKADIN ZURE USTEZ?

0-10 arteko batez bestekoa	18-29 urte	≥ 30 urte
Euskadiko egoerari emandako puntuazioa	5,9	5,6
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

2021ean, gazteek 10etik 5,9ko balioa eman zioten une horretan Euskadiko egoerari.

Gazteen balorazioa 30 urte eta gehiagoko Euskadiko biztanleria orokorrak (5,6) egindakoa baino pixka bat positiboagoa da.

2019tik 2021era, nabarmen jaitsi da gazteen Euskadiko egoeraren balorazioa, 6,8tik 5,9ra, hau da, 2015etik izan den baliorik baxuena. COVID-19ak sortutako egoerak eragin negatiboa izan du 2019tik 2021era.



la ez dago alderik gazteen kolektiboen artean Euskadiko egoera baloratzeko orduan.

Euskadiko egoeraren balorazioa, taldeen arabera

0-10 arteko batez bestekoa	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskadiko egoerari emandako puntuazioa	5,9	5,9	5,9	6,0	5,8	5,8	5,9	5,9
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	193	240	104	188	141

4.2. Euskadiko arazo nagusiak

ZURE USTEZ ZEINTZUK DIRA EUSKADIKO HRU ARAZO NAGUSIAK?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Lan merkatuari buruzko arazoak	44	67
COVIDaren pandemia	15	20
Egoera politikoa, politikariak, gatazka politikoa...	14	19
Arazo ekonomikoak	14	17
Etxebizitza eta deshauzioak	12	10
Osasuna, Osakidetza, Segurtasun Soziala	9	15
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak...	8	7
Hezkuntza	8	6
Arazo eta desoreka sozialak	6	6
Gazteriari lotutako arazoak	6	5
Azpiegiturak eta garraioak	6	4
Egoera linguistikoari lotutako arazoak	5	3
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria...)	4	6
Ingurumena	4	4
Delinkuentzia eta segurtasuna falta	3	8
Pentsioak	2	3
Balioen krisia, berekoikeria, intolerantzia, errespetu faltak, kontsumismoa...	2	3
Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna	2	2
Arazo demografikoak, jaiotza-tasa txikia, biztanleria zahartzea...	1	2
Biolentzia, terrorismoa, presoak, bake prozesua...	1	1
Ustelkeria eta iruzurra	1	1
Drogak	1	0


Inkestatutako pertsonen berez emandako erantzunen kodifikazio bat egin ondoren. Ehunekoak 100 baino gehiago dira, hiru erantzun eman zitezkeelako.

Gazteen iritziz, Euskadiko arazo nagusiak lan-merkatuari lotutakoak dira (langabezia, lan-prekarietatea, etab.). Hala adierazten dute gazteen % 44k.

Bigarrenik, COVID19aren pandemiarekin lotutako arazoak daude (% 15), eta ondoren, egoera politikoa (% 14), arazo ekonomikoak (% 14) eta etxebizitza eta deshauzioak (% 12).

Gazteek 30 urteko edo gehiagoko biztanleek baino gutxiago aipatzen dituzte lan-arazoak, pandemia, osasuna, egoera politikoa eta delinkuentzia.


18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskadin dituzten arazo nagusien arteko alderaketa (%)



2019tik 2021era behera egin dute lanarekin edo immigrazioarekin lotutako arazoaren aipamenek, eta pandemiaren arazoa sortu da, eta arazo politiko, ekonomiko eta sanitarioen aipamenak ugaritu egin dira.

Atzera begiratzen badugu, ikusten dugu lan-merkatuaren arazoak 2009an hasitako krisi ekonomikoaren aurreko mailan daudela, eta etxebizitza-arazoak ere ez direla higiezinen boomaren aldirian bezain aipatuak.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen iritziz, Euskadiko arazo nagusien bilakaera (%)



Gazteen kolektibo guztietan, lan-merkatuarekin lotutako arazoa da Euskadi mailan garrantzitsuena dela uste dutena. Nolanahi ere, arazo hori, etxebizitzarekin batera, gehiago aipatzen dute 25-29 urtekoek 25 urtetik beherakoek baino.

Euskadiko arazo nagusiak 18 eta 29urte bitartekoen iritzian, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lan merkatuari buruzko arazoak	44	46	43	37	54	43	49	38
COVIDaren pandemia	15	16	14	16	15	12	16	16
Egoera politikoa, politikariak, gatazka politikoa...	14	15	13	13	16	17	14	14
Arazo ekonomikoak	14	13	14	14	13	13	14	13
Etxebizitza eta desahuzioak	12	12	13	8	18	11	12	13
Osasuna, Osakidetza, Segurtasun Soziala	9	8	10	8	11	11	9	9
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak...	8	6	10	7	9	10	9	6
Hezkuntza	8	5	10	9	6	8	7	8
Arazo eta desoreka sozialak	6	6	6	7	5	5	7	6
Gazteriari lotutako arazoak	6	5	6	6	6	3	7	6
Azpiegiturak eta garraioak	6	6	5	5	7	7	5	6
Egoera linguistikoari lotutako arazoak	5	5	5	5	5	2	4	7
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria...)	4	4	5	4	6	4	4	5
Ingurumena	4	5	3	3	5	3	5	3
Delinkuentzia eta segurtasuna falta	3	3	3	2	5	3	4	1
Pentsioak	2	3	2	3	2	1	3	2
Balioen krisia, berekoikeria, intolerantzia, errespetu faltak, kontsumismoa...	2	2	2	2	2	1	1	3
Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna	2	1	3	2	1	2	1	3
Arazo demografikoak, jaiotza-tasa txikia, biztanleria zahartzea...	1	2	1	1	2	0	1	1
Biolentzia, terrorismoa, presoak, bake prozesua...	1	1	0	1	1	1	1	0
Ustelkeria eta iruzurra	1	1	1	1	1	1	1	0
Drogak	1	1	0	1	0	1	0	1
n (absolutuak, haztatu gabe)								

Gazteen guztizkoan % 2tik gorako aipamenak dituzten arazoak baino ez dira sartzen.


4.3. Euskadiko egoera ekonomikoaren balorazioa

ZURE USTEZ, NOLAKOA DA EGOERA EKONOMIKOA EUSKADIN: OSO ONA, ONA, TXARRA EDO OSO TXARRA?

%	18-29 urte		≥ 30 urte	
Oso ona	12		4	
Ona	69		64	
Txarra	16		29	
Oso txarra	3		3	
Ed/Ee	0		0	
Ehuneko bertikalak	100		100	
N (absolutuak, haztatu gabe)	858		5677	


Gazte gehienek uste dute Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela (% 81). EAEko egoera ekonomikoaren balorazio positibo horrek 30 urteko eta gehiagoko pertsonen artean erregistratutakoa gainditzen du; izan ere, horien % 68k uste du ona edo oso ona dela.

Gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriak Euskadiko egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



2009 eta 2015 urteen artean, gehiago izan ziren Euskadiko egoera ekonomikoa txarra zela uste zuten gazteak, ona zela uste zutenak baino. Hala ere, orduetik, Euskadiko egoera ekonomikoa positiboki baloratzen dutenek nabarmen gainditzen dute egoera hori modu negatiboan baloratzen dutenak baino.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiko egoera ekonomikoari buruz egindako balorazioaren bilakaera (%)



Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela uste dutenak batera aztertzen baditugu, ikusten dugu gehiengoa direla kolektibo guztietan, eta, gainera, haien ehunekoa nabarmenagoa dela gizonen artean (% 82), 25 urtetik beherakoen artean (% 85) eta Araban bizi direnen artean (% 84).

Euskadiko egoera ekonomikoaren balorazioa, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	12	12	11	12	11	15	10	11
Ona	69	70	68	73	66	69	68	70
Txarra	16	15	18	12	20	12	17	18
Oso txarra	3	3	3	3	3	3	4	1
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	858	462	396	347	511	206	373	279

4.4. Euskadiko egoera politikoaren balorazioa


EUSKADIKO EGOERA POLITIKOARI DAGOKIONEZ, ZURE USTEZ OSO ONA, ONA, TXARRA EDO OSO TXARRA DA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso ona	3	3
Ona	69	65
Txarra	22	25
Oso txarra	5	7
Ed/Ee	1	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	866	5800


Gazteek positiboki baloratzen dute Euskadiko egoera politikoa, % 72ren ustez ona edo oso ona baita. Taldekatutako ehuneko hori egoera ona dela uste duten pertsonen (% 69) eta egoera oso ona dela uste duten pertsonen (% 3) osatzen dute nagusiki.

Euskadiko egoera politikoa oso ona edo ona dela uste duten 30 urtetik gorako pertsonen ehunekoak antzeko ehunekoak ditu.

Gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleriak Euskadiko egoera politikoari buruz egindako balorazioen arteko alderaketa (%)



2016ra arte, gazteen balioespenak, Euskadiko egoera politikoari dagokionez, negatiboak ziren (2006an izan ezik, orduan gazte gehiagok adierazi baitzuten ona edo oso ona zela txarra edo oso txarra zela uste zutenek baino). 2016az geroztik, ordea, balorazio positiboak negatiboak baino handiagoak izan dira, eta, gainera, goranzko joera izan dute.



Gazteen kolektibo guztietan gehiengoa dira Euskadiko egoera politikoa ona edo oso ona dela uste dutenak. Balorazio positiboak orokorragoak dira emakumeen artean (% 77) eta Bizkaian bizi direnen artean (% 74).

Euskadiko egoera politikoaren balorazioa, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	3	3	4	2	5	6	2	3
Ona	69	66	73	72	67	66	72	68
Txarra	22	24	19	21	22	20	23	22
Oso txarra	5	7	3	5	6	8	4	6
Ed/Ee	1	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	866	466	400	353	513	208	376	282

4.5. Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasuna


ORO HAR, ZU OSO POZIK, NAHIKOA POZIK, EZ OSO POZIK ALA EZ ZAUDE BATERE POZIK DEMOKRAZIAK EUSKADIN DUEN FUNTZIONAMENDUAREKIN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso pozik	10	8
Nahikoa pozik	43	44
Ez oso pozik	33	34
Batere pozik ez	13	12
Ed/Ee	1	3
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Gazteen erdia baino gehiago pozik dago Euskadiko demokraziaren funtzionamenduarekin (% 53 oso edo nahiko pozik dago).


Euskadiko demokraziaren funtzionamenduarekin pozik dauden pertsonen ehunekoa antzekoa da gazteen (% 53) eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen artean (% 52).

Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin pozik dauden gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleriaren ehunekoen arteko alderaketa (%)



Euskadiko gazteek demokraziaren funtzionamenduarekin duten gogobetetasunak goranzko joera izaten jarraitzen zuen 2019ra arte, baina 2021ean beherakada handia izan du, % 61etik % 53ra igaro baita.

Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasunaren bilakaera, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)



Gazteen kolektibo guztietan, erdia baino gehiago Euskadiko demokraziaren funtzionamenduarekin oso edo nahiko pozik daude. Araban bakarrik, pozik dauden gazteen ehunekoa ez da % 50era iristen (zehazki, % 47koa da).

Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekiko poztasuna, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso pozik	10	11	9	8	12	10	11	10
Nahikoa pozik	43	43	44	45	42	37	40	53
Ez oso pozik	33	28	39	35	32	36	38	25
Batere pozik ez	13	18	7	12	14	18	12	10
Ed/Ee	1	0	1	0	1	0	0	2
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

4.6. Giza eskubideen errespetuarekiko gogobetetasuna Euskadin


ORO HAR, ZU OSO POZIK, NAHIKOA POZIK, EZ OSO POZIK ALA EZ ZAUDE BATERE POZIK EUSKADIN GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUAREKIKO?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso pozik	19	12
Nahikoa pozik	50	52
Ez oso pozik	23	25
Batere pozik ez	7	7
Ed/Ee	1	3
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Euskadiko gazte gehienak pozik daude Euskadiko giza eskubideen errespetuarekin: 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 19 oso pozik dago, % 50 nahiko pozik. Kontrako aldean, % 23 ez dago oso pozik, eta gainerako % 7a ez dago batere gustura.

Ehuneko horiek 30 urtetik gorako biztanleriak adierazten duenarekin alderatuta, pozik dauden pertsonen ehunekoa, oso edo dezente, handiagoa da gazteen artean 30 urtetik gorakoen artean baino.

Giza eskubideen errespetuarekiko gogobetetasuna Euskadin gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleriaren ehunekoaren arteko alderaketa (%)



Giza eskubideen errespetuarekiko gogobetetasuna Euskadin 18 eta 29 urte bitartekoen artean, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso pozik	19	23	14	18	20	18	18	21
Nahikoa pozik	50	53	47	55	47	44	50	57
Ez oso pozik	23	15	32	20	25	31	23	16
Batere pozik ez	7	8	6	7	7	8	8	5
Ed/Ee	1	1	0	0	1	0	1	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

4.7. Euskadiko zerbitzu publikoei buruzko balorazio orokorra


ORO HAR, NOLAKOAK USTE DUZU DIRELA ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKADIN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso onak	23	17
Nahikoa onak	68	69
Nahikoa txarrak	9	11
Oso txarrak	0	2
Ed/Ee	1	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 91k oso iritzi ona du Euskadiko zerbitzu publikoei buruz. % 23k uste du oso onak direla, eta % 68k uste du nahiko onak direla. Soilik % 9k uste du nahiko txarrak direla.


30 urtetik gorako biztanleak apur bat kritikoagoak dira Euskadiko gizarte-zerbitzuekin. Gazteen artean baino pixka bat gehiagok uste du Euskadiko gizarte-zerbitzuak nahiko txarrak direla (% 11), eta % 2k uste du oso txarrak direla.

Gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleriak Euskadiko zerbitzu publikoei buruz emandako balorazioen arteko alderaketa (%)



Euskadiko zerbitzu publikoak oso onak edo nahiko onak direla uste duten gazteen ehunekoa handitu egin da 2018tik 2021era. Hala ere, balorazioa jaitsi egin da 2019arekin alderatuta, izan ere, pandemiaren urte hauetan Euskadiko zerbitzu publiko guztiek jasan duten presioak eta emandako erantzunak balio izan du gazteek zerbitzu horiei buruz duten iritzi ona mantentzeko.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadiko zerbitzu publikoei buruz egindako balorazioen bilakaera (%)



2019ko zerbitzu publikoekiko balorazio positiboak % 90 baino gehiago biltzen du kolektibo guztietan.

Euskadiko zerbitzu publikoen balorazio orokorra, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso onak	23	22	23	24	21	22	26	18
Nahikoa onak	68	69	67	66	70	62	67	72
Nahikoa txarrak	9	9	9	9	9	15	6	10
Oso txarrak	0	0	0	0	0	1	0	0
Ed/Ee	1	0	1	1	0	1	1	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	160	273	104	188	141


Euskadiko zerbitzu publikoen etorkizunari buruz galdetuta, 18-29 urteko gazteen % 52k uste dute hobera egingo dutela, % 32k uste dute berdin jarraituko dutela eta % 16k okerrera egingo dutela.

ZURE USTEZ DATOZEN URTEETAN ZERBITZU PUBLIKOEN HOBERA EGINGO DUTE, BERTIN JARRAITUKO DUTE EDO OKERRERA EGINGO DUTE EUSKADIN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Hobera egingo dute	52	47
Berdin jarraituko dute	32	29
Okerrera egingo dute	16	21
Ed/Ee	0	2
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

30 urtetik gorakoan artean, zertxobait gutxiago dira hobera egingo dutela uste dutenak (% 47); aitzitik, beste batzuek uste dute okerrera egingo dutela (% 21).

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskadin zerbitzu publikoetatik espero duten bilakaeraren alderaketa (%)



Elkarrizketatuen artean gazteenak, 18 eta 24 urte bitartekoak, dira etorkizunean Euskadiko zerbitzu publikoek hobera egingo dutela gehien espero dutenak (% 59).

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Euskadin zerbitzu publikoetatik espero duten bilakaera, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobera egingo dute	52	50	54	59	43	51	52	51
Berdin jarraituko dute	32	33	31	28	37	32	30	34
Okerrera egingo dute	16	17	15	13	20	17	17	13
Ed/Ee	0	0	1	0	1	0	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141


Enpresa pribatuak edo administrazio publikoek kudeatzen dituzten zerbitzu publikoek hobeto funtzionatzen ote duten jakiteko iritziek banatutako ehunekoak eskaintzen dituzte, nahiz eta pixka bat inposatzen diren administrazio publikoek zerbitzu publikoak hobekien kudeatzen dituztela uste dutenak.

OROKORREAN, USTE DUZU ENPRESA PRIBATUEK KUDEATUTAKO ZERBITZUEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KUDEATUTAKOAK BAINO HOBETO FUNTZIONATZEN DUTELA, BIEK BERDIN FUNTZIONATZEN DUTELA EDO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KUDEATUTAKOEN HOBETO FUNTZIONATZEN DUTELA?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Hobeto enpresa pribatuek kudeatutakoak	23	19
Biek berdin	36	30
Hobeto administrazio publikoek kudeatutakoak	37	46
Ed/Ee	4	5
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	2900

30 urteko eta gehiagoko biztanleek gazteek baino neurri handiagoan pentsatzen dute zerbitzu publikoek hobeto funtzionatzen dutela administrazio publikoek kudeatzen badituzte.

Euskadiko zerbitzu publikoen titulartasun publiko edo pribatuari buruzko alderaketa, 18 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen artekoa (%)



Kolektibo guztietan gehiago dira administrazio publikoek kudeatutako zerbitzu publikoek enpresa pribatuek kudeatutakoak baino hobeto funtzionatzen dutela uste duten gazteak. Iritzi hori batez bestekoa baino zabalduagoa dago Araban bizi diren gazteen artean.

Euskadiko zerbitzu publikoen titulartasunari buruzko iritzia, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobeto enpresa pribatuek kudeatutakoek	23	24	23	24	23	17	23	29
Biek berdin	36	35	36	40	33	28	43	30
Hobeto administrazio publikoek kudeatutakoek	37	38	36	34	39	47	32	38
Ed/Ee	4	2	5	2	5	8	2	3
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak haztatu gaber)	433	233	200	160	273	104	188	141

4.8. Eusko Jaurlaritzaren zenbait arlotako jardueraren balorazioa

ZURE IRITZIZ, NOLAKOA DA ONDOKO GAJETAN AZKEN URTEOTAN EUSKO JAURLARITZA EGITEN ARI DEN LANA: ONA, HALA-HOLAKOA EDO TXARRA?

%		18-29 urte		≥ 30 urte	
Turismoa	Ona	72	68		
	Hala-holakoa	21	23		
	Txarra	7	6		
	Ed/Ee	0	3		
Kultura	Ona	59	53		
	Hala-holakoa	29	35		
	Txarra	12	9		
	Ed/Ee	0	2		
Osasungintza	Ona	51	49		
	Hala-holakoa	34	33		
	Txarra	14	17		
	Ed/Ee	1	0		
Ingurumena	Ona	47	42		
	Hala-holakoa	32	40		
	Txarra	20	16		
	Ed/Ee	0	2		
Hezkuntza	Ona	46	50		
	Hala-holakoa	42	36		
	Txarra	12	13		
	Ed/Ee	0	1		
Euskera	Ona	44	59		
	Hala-holakoa	40	28		
	Txarra	14	9		
	Ed/Ee	1	4		
Bakea eta bizikidetzatza	Ona	44	48		
	Hala-holakoa	44	37		
	Txarra	8	11		
	Ed/Ee	4	4		


%		18-29 urte	≥ 30 urte
Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna	Ona	43	52
	Hala-holakoa	40	35
	Txarra	16	11
	Ed/Ee	0	2
Herrilanak eta azpiegiturak	Ona	42	42
	Hala-holakoa	36	37
	Txarra	18	18
	Ed/Ee	3	3
Herritarren segurtasuna	Ona	42	39
	Hala-holakoa	39	41
	Txarra	19	20
	Ed/Ee	0	1
Gizarte ongizatea	Ona	38	47
	Hala-holakoa	46	39
	Txarra	15	12
	Ed/Ee	0	1
Ekonomia	Ona	31	36
	Hala-holakoa	53	47
	Txarra	15	15
	Ed/Ee	1	2
Justizia	Ona	29	26
	Hala-holakoa	46	46
	Txarra	24	24
	Ed/Ee	1	5
Enplegua	Ona	27	30
	Hala-holakoa	53	53
	Txarra	18	15
	Ed/Ee	1	2
Etxebizitza	Ona	18	25
	Hala-holakoa	38	45
	Txarra	43	28
	Ed/Ee	1	2
Ehuneko bertikalak		100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		433	2900

Gazteen erdiak baino gehiagok uste du Eusko Jaurlaritzaren jarduera ona dela turismoari, kulturari eta osasunari dagokienez. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren gainerako jardun-arloek ez dute beren jarduna ontzat jotzen duten gazteen % 50 biltzen. Nolanahi ere, etxebizitzaren arloan bakarrik, kudeaketa txartzat jotzen dutenek gainditzen dituzte ona dela uste dutenak.

Nabarmentzekoa da gazteen kolektiboarentzat bereziki sentikorrek diren bi arlo direla balorazio negatiboena jasotzen dutenak: enplegua eta etxebizitza. 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 53k uste du Eusko Jaurlaritzaren jarduera erregularra dela arlo horretan, eta beste % 18k txartzat jo du. Etxebizitzaren gaiak, bestalde, balorazio negatiboagoak izan ditu oraindik; izan ere, % 18k baino ez du ontzat jo Eusko Jaurlaritzaren jarduera gai horretan; % 38k erregularizat jotzen du, eta % 43k txartzat.


Gazteak kritikoagoak dira 30 urteko eta gehiagoko herritarrak baino, Eusko Jaurlaritzak euskararen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta gizarte-ongizatearen arloetan egindako kudeaketarekin alderatuta.

Eusko Jaurlaritzak ondoko arloetan egindako lana ona dela uste duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen arteko alderaketa (%)



Jaurlaritzak 18 eta 29 urte bitartekoen eta 30 urtetik gorakoen artean izan duen jokabideari buruzko iritziak alderatzen baditugu, ikus dezakegu desberdintasun handienak euskararen arloan gertatzen direla (gazteen % 44k ontzat jotzen du Jaurlaritzak arlo horretan izan duen jarduera, eta 30 urtetik gorakoen artean, berriz, % 59k). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan ere alde nabarmena dago: gazteen % 43k ontzat jotzen du Jaurlaritzaren jarduna, eta % 52k, berriz, 30 urtetik gorako biztanleen artean eta gizarte-ongizatearen arloan (% 38 gazteen artean eta % 47 oster, 30 urtetik gorakoen artean).

Gazteek 2021ean 2018an baino hobeto baloratzen dute Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa berdintasunaren, hezkuntzaren, ekonomiaren eta enpleguaren arloetan, eta kritikagoa da ingurumen-gaien eta obra publikoen kudeaketarekin.



25 urtetik beherakoek 25 eta 29 urte bitartekoek baino balorazio hobea ematen diote turismoaren, kulturaren, osasunaren eta ingurumenaren arloetako kudeaketari, 25 urtetik beherako gazte gehienek onespena lortzen baitute. Aitzitik, 25 eta 29 urte bitarteko pertsonak gazteek baino hobeto baloratzen dute Eusko Jaurlaritzak euskara edo berdintasunarekin lotutako gaietan egindako lana.

Gizon eta emakume gazteen balorazioan dauden aldeak bereziki nabarmenak dira euskararen kudeaketan (balorazio positiboagoak dituzte emakumeen artean) eta berdintasunean, gizarte-ongizatean, ekonomian eta enpleguan, non gizonek balorazio hobekak dituzten.

Eusko Jaurlaritzak ondoko arloetan egindako lanaren balorazioa 18 eta 29 urte bitartekoen artean, taldeen arabera

	%	GUZTIRA							
		Sexua		Adina		Lurralde historikoak			
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Turismoa	Ona	72	73	71	74	69	70	73	71
	Hala-holakoa	21	20	23	19	24	28	22	18
	Txarra	7	7	7	7	7	2	5	11
	Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Kultura	Ona	59	57	61	62	54	63	63	51
	Hala-holakoa	29	30	29	17	32	30	27	32
	Txarra	12	13	10	11	13	7	10	16
	Ed/Ee	0	0	0	0	1	0	0	0
Osasungintza	Ona	51	52	49	54	47	49	50	52
	Hala-holakoa	34	32	36	32	36	30	38	29
	Txarra	14	15	14	12	17	21	10	18
	Ed/Ee	1	2	0	2	0	0	1	1
Ingurumena	Ona	47	45	50	52	42	55	45	47
	Hala-holakoa	32	29	35	30	34	34	34	28
	Txarra	20	25	15	18	23	11	19	25
	Ed/Ee	0	1	0	0	1	0	1	0
Hezkuntza	Ona	46	46	45	44	47	42	50	41
	Hala-holakoa	42	43	41	45	38	45	38	45
	Txarra	12	11	14	11	14	13	11	13
	Ed/Ee	0	0	0	0	1	0	0	0
Euskara	Ona	44	41	48	39	51	52	49	34
	Hala-holakoa	40	44	36	44	36	34	37	48
	Txarra	14	14	15	17	12	13	13	18
	Ed/Ee	1	1	1	1	1	1	1	0
Bakea eta bizikidetzatza	Ona	44	44	44	42	46	37	45	44
	Hala-holakoa	44	42	47	46	41	46	43	45
	Txarra	8	11	6	7	10	12	7	10
	Ed/Ee	4	4	4	5	3	5	6	1
Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna	Ona	43	47	39	40	47	42	43	45
	Hala-holakoa	40	36	45	41	39	40	39	41
	Txarra	16	16	16	18	14	18	17	14
	Ed/Ee	0	1	0	1	0	0	1	0

	%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde historikoak		
			Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Herrilanak eta azpiegiturak	Ona	42	40	45	43	41	32	46	42
	Hala-holakoa	36	38	33	37	35	35	38	34
	Txarra	18	21	16	16	21	31	12	22
	Ed/Ee	3	2	5	4	2	1	5	2
Herritarren segurtasuna	Ona	42	45	39	41	44	37	43	44
	Hala-holakoa	39	33	44	40	36	40	37	40
	Txarra	19	21	16	18	20	23	20	16
	Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Gizarte ongizatea	Ona	38	41	34	37	39	35	41	35
	Hala-holakoa	46	42	51	47	46	44	48	44
	Txarra	15	16	14	16	14	21	11	20
	Ed/Ee	0	1	0	1	0	0	0	1
Ekonomia	Ona	31	37	24	29	32	34	30	30
	Hala-holakoa	34	48	59	52	55	47	52	58
	Txarra	14	15	15	18	12	18	16	12
	Ed/Ee	1	0	2	1	1	1	2	0
Justizia	Ona	29	26	30	30	28	31	28	30
	Hala-holakoa	46	46	45	45	48	46	45	49
	Txarra	24	24	23	24	24	24	26	21
	Ed/Ee	1	5	2	1	0	0	2	0
Enplegua	Ona	27	33	22	28	27	30	26	29
	Hala-holakoa	53	48	59	53	53	44	51	61
	Txarra	18	19	17	18	19	26	22	10
	Ed/Ee	1	0	2	1	0	0	2	0
Etxebizitza	Ona	18	16	20	22	14	26	18	15
	Hala-holakoa	38	38	37	41	34	34	39	38
	Txarra	43	45	41	37	51	40	42	47
	Ed/Ee	1	1	1	1	1	0	2	0
Ehuneko bertikalak		100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		433	233	200	160	273	104	188	141

5. Jarrera eta balio politikoak

5.1. Politikarekiko interesa


ORO-HAR, NOLAKO INTERESA DUZU POLITIKAZ?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Interes handia	14	11
Nahikoa interes	26	24
Interes gutxi	40	32
Batere interesik ez	20	32
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	2900


Euskadiko hamar gaztetik lauk interes handia edo nahiko handia dute politikan. Beste % 40k ez du politikarekiko interes handirik, eta gainerako % 20ak ez du inolako interesik sentitzen.

30 urtetik beherakoen artean, politikarekiko interesa handiagoa da 30 urtetik gorakoen artean baino.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta Euskadiko 30 urte edo gehiagoko biztanleek politikaz duten interesaren arteko alderaketa (%)



Gazteen politikarekiko interesa handitzen ari da azken urteotan.



Gizonek emakume gazteek baino interes handiagoa dute politikan. Gainera, 25 urtetik beherakoek eta Bizkaian bizi direnek ere batez bestekoa baino interes handiagoa dute.

Politikarekiko interesa, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Interes handia	14	19	8	16	12	6	16	18
Nahikoa interes	26	25	27	30	23	26	29	20
Interes gutxi	40	35	47	43	39	49	38	37
Batere interesik ez	20	21	18	12	25	19	17	25
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	233	200	160	273	104	188	141


5.2. Ezker-eskuin eskalan baloratzea

POLITIKAZ HITZ EGITEN DENEAN NORMALKI EZKERRAZ ETA ESKUINAZ HITZ EGITEN DA. ZU ZEIN TOKITAN KOKATUKO ZINATEKE, OTIK 10ERAKO ESKALAN, ZEINETAN OAK EZKER MUTURRA ETA 10AK ESKUIN MUTURRA ESAN NAHI DUTEN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
0 (ezker muturra)	8	5
1	4	2
2	10	6
3	17	13
4	13	12
5	31	41
6	6	6
7	4	4
8	2	2
9	0	0
10 (eskuin muturra)	1	1
Ed/Ee	5	8
Ehuneko bertikalak	100	100
0-10 arteko batez bestekoa	3,8	4,3
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700

Gazteen % 52 5etik behera dago, hau da, eskala ideologikoaren ezker aldean. Aitzitik, % 13 baino ez dago eskuineko posizioetan, hau da, 5etik gora. Eskala horretako posizionamenduaren batez bestekoa, beraz, 3,8koa da.


18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek 2021ean ezker-eskuin eskalan hartzen duten posizioen arteko alderaketa (%)



Gazteekin alderatuta, 30 urte eta gehiagoko biztanleen artean askoz gutxiago dira ezkerreko posizioetan daudenak, 5etik behera (% 38), eta, batez ere, gehiago dira zentroan daudenak (% 41). Ondorioz, adin-talde horren batez bestekoa, ezker-eskuin eskalan (4,3), gazteena baino zertxobait handiagoa da.

Posizionamendu ideologikoaren batez bestekoa nahiko egonkor mantentzen da seriean zehar.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek ezker-eskuin eskalan duten kokapenaren bilakaera (0-10 arteko batezbestekoa)



*2011n ez zegoen 30 urte edo gehiagoko pertsonen daturik

25 urtetik beherakoek eta Gipuzkoan bizi direnek besteek baino ezkererago kokatzen dute beren burua.

Ezker-eskuin eskalarekiko kokapena, taldeen arabera

0-10 arteko batez bestekoa	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ezker-eskuin eskalan balorazioa	3,8	3,9	3,8	3,7	4,0	4,0	3,9	3,7
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423


5.3. Euskal nazionalismo edo abertzaletasunaren eskalan kokatzea

EUSKAL NAZIONALISTA EDO ABERTZALE SENTIMENDUARI DAGOKIONEZ, ESANGO ZENIDAKE MESEDEZ NON KOKATUKO ZINATEKEEN OTIK 10ERAKO ESALAN, KONTUAN HARTUTA OA DELA BATERE NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA EZ ETA 10A OSO NAZIONALISTA EDO ABERTZALEA?


%	18-29 urte	≥ 30 urte
0 (Batere ez nazionalista edo abertzale)	16	18
1	2	2
2	2	3
3	5	4
4	4	4
5	25	24
6	10	8
7	13	8
8	10	9
9	2	3
10 (Oso nazionalista edo abertzale)	5	8
Ed/Ee	5	6
Ehuneko bertikalak	100	100
0-10 arteko batez bestekoa	4,9	4,8
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700

Gazteek euskal sentimendu nazionalistaren inguruan dituzten jarrerak nahiko banatuta daude. % 29 5etik behera dago 0-10 eskalan, eta horrek esan nahi du ez direla nazionalista sentitzen. Laurden batek (% 25) erdibideko jarrera hartzen du (5). Eta % 40k 5etik gora kokatzen dute beren burua, hau da, nazionalistatzat jotzen dute beren burua. Gainerakoek (% 5) ez dakite edo ez dute erantzuten. Batez bestekoa 4,9koa da.

30 urte eta gehiagoko biztanleen artean, banaketa oso antzekoa da.



Gazteek euskal nazionalismoarekiko duten posizionamendua oso egonkor mantendu da azken urteotan, beti tarteko posizioetan. 30 urteko eta gehiagoko pertsonen posizioak gazteen posizioen antzekoak dira, eta egonkor mantentzen dira.



Ez dago alde nabarmenik sexuaren edo adinaren arabera; horietan guztietan gazteen batez besteko puntuazioak 0-10 eskalako erdiko edo tarteko postuetan daude. Gipuzkoako gazteek batez bestekoa baino nazionalistagozat jotzen dute euren burua (5,5).

Euskal abertzaletasunaren eskalan kokapena, taldeen arabera

0-10 arteko batez bestekoa	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskal nazionalismoaren eskalan izandako puntuazioa	4,9	4,9	4,9	4,9	4,9	4,6	4,6	5,5
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423

5.4. Euskal Herriaren independentziarekiko jarrera


EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIARI DAGOKIONEZ ZU PERTSONALKI...

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Ados zaude	28	21
Egoeraren arabera ados edo contra egongo zinateke	41	31
Kontra zaude	25	43
Ed/Ee	5	5
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700


Euskadiko gazteak nahiko polarizatuta daude Euskal Herriaren independentziari dagokionez; independentziaren alde edo aurka dauden pisua antzekoa da (% 28 eta % 25, hurrenez hurren), eta % 41ek diote ados egongo liratekeela ala ez independentzia-prozesuaren inguruko inguruabarren arabera.

30 urtetik gorako pertsonen artean, independentziaren alde daudenek pisu txikiagoa dute gazteen artean baino, eta, aitzitik, talde handiena (gehiagoa ez izan arren) independentziaren aurka daudenek osatzen dute.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek Euskal Herriaren independentziari dagokionez dituzten jarreraren arteko alderaketa (%)



Independentziaren aldeko edo kontrako jarrera argi duten gazteen ehunekoa nahiko konstantea da azken urteotan.



Kolektiboen arabera azterketak erakusten digu independentziari ematen zaion babes handiagoa dela Gipuzkoan.

Euskal Herriaren independentziaren inguruko kokapena 18 eta 29 urte bitartekoen artean, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ados zaude	28	28	29	28	28	29	24	34
Egoeraren arabera ados edo kontra egongo zinateke	41	39	44	45	38	37	42	44
Kontra zaude	25	28	21	24	26	28	30	16
Ed/Ee	5	5	6	2	7	6	4	6
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423

5.5. Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna


PARTIDU POLITIKOREN BATETIK HURBIL SENTITZEN ZARA?

%	18-29 urte	
	18-29 urte	≥ 30 urte
Oso hurbil	4	6
Nahikoa hurbil	10	10
Apur bat hurbil	20	17
Ez oso hurbil	21	18
Batere hurbil ez	45	48
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	2900


Gazteen % 14 alderdi politikoren batetik oso hurbil edo nahiko hurbil sentitzen da. Beste % 20k esan du alderdiren batetik gertu sentitzen dela, eta % 66k adierazi du ezer gutxi sentitzen dela ezein alderditatik hurbil.

30 urte eta gehiagoko pertsonen artean banaketa antzekoa da.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta Euskadiko 30 urte edo gehiagoko biztanleek alderdi politikoetatik sentitzen duten hurbiltasun mailaren arteko alderaketa (%)



Alderdi politikoekiko hurbiltasunak balio oso baxuetan jarraitzen du aztertutako serie osoan, nahiz eta 2018 eta 2021 artean behera egin duen alderdi politikoetatik gutxi edo batere hurbil sentitzen ez direnen ehunekoak.



Alderdi politikoekiko kidesan-ehunekoak txikiak dira sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoen arabera aztertzen ditugunean; hala ere, Arabako gizonen eta gazteen artean balio handixeagoak lortzen dira "oso hurbil" kategorian.

Alderdi politikoren batekiko hurbiltasuna, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso hurbil	4	6	2	5	4	7	3	3
Nahikoa hurbil	10	10	11	10	11	11	7	13
Apur bat hurbil	20	19	21	23	18	18	21	19
Ez oso hurbil	21	21	21	21	20	19	23	18
Batere hurbil ez	45	45	46	41	48	45	45	46
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak haztatu gabe)	433	233	200	160	273	104	188	141

5.6. Eusko Legebiltzarrean ordezkapena duten alderdi politikoekiko begikotasuna


0-TIK 10-ERAKO ESKALA ERABILIZ, 0-AK INOLAKO SINPATIARIK EZ ETA 10-AK SINPATIA HANDIA ESAN NAHI DUTELARIK, ZENBATEKO SINPATIA SORTZEN DIZUTE ONDOKO ALDERDI POLITIKOEEK?

0-10 arteko batez bestekoa	18-29 urte	≥ 30 urte
EH BILDU	4,8	3,7
EAJ-PNV	4,7	5,0
ELKARREKIN PODEMOS	4,5	3,6
PSE-EE	4,2	4,2
PP+CIUDADANOS	2,1	1,8
VOX	0,8	0,7
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700

Gazteek begikotasun handiena sentitzen duten alderdiak EH Bildu (4,8), EAJ-PNV (4,7) eta Elkarrekin Podemos (4,5) dira. PSE-EEK 4,2 puntu lortu ditu, eta PP+Ciudadanosek, berriz, gazteei begikotasun gutxien eragiten dien alderdia da, batez beste 2,1 puntu baino ez baititu. Voxek ez du 1. balorazioa ere lortu (0,8).


30 urte eta gehiagoko pertsonak adierazten dute gazteek baino begikotasun handiagoa diotela EAJ-PNVri (5,0 eta 4,5, hurrenez hurren) eta txikiagoa EH Bilduri (batez beste 3,7 ematen diote) edo Elkarrekin Podemosi (3,6 lortzen dute 30 urte eta gehiagoko pertsonen artean). Bestalde, PSE-EEri, PP+Ciudadanosi eta Voxi gazteek eta adinekoek ematen dizkieten puntuazioak antzekoak dira.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko Euskadiko biztanleek Eusko Legebiltzarrean ordezkariak izan behar duten alderdi politikoekiko duten begikotasunaren alderaketa (0-10 batez bestekoa)



2021ean, alderdi politiko guztiek lortu dute serieko puntuaziorik onena.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoezko duten sinpatiaren bilakaera (0-10 batezbestekoa)



Kolektibo guztietan, alderdi bakoitzarekiko begikotasunaren batez bestekoa 5etik beherakoa da, 18 eta 24 urte bitartekoen kasuan izan ezik, horiek EH Bilduri 5,0 puntu ematen baitiote, eta Gipuzkoako gazteek 5,5 puntu.

Oro har, 18 eta 24 urte bitartekoek alderdi guztiei ematen diete 25 eta 29 urte bitartekoek baino balorazio hobea.

Eusko Legebiltzarrean ordezkapena duten alderdi politikoezko begikotasuna, taldeen arabera


0-10 arteko batez bestekoa	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
EH BILDU	4,8	4,8	4,9	5,0	4,7	4,4	4,6	5,5
EAJ/PNV	4,7	4,6	4,9	4,9	4,5	4,4	4,9	4,8
ELKARREKIN PODEMOS	4,5	4,4	4,5	4,7	4,3	4,3	4,4	4,6
PSE-EE	4,2	4,1	4,3	4,5	4,0	4,3	4,2	4,2
PP+CIUDADANOS	2,1	2,0	2,2	2,5	1,8	2,5	2,2	1,7
VOX	0,8	0,8	0,8	0,9	0,8	1,1	0,8	0,7
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423

5.7. Botoa emateko ohitura

ZUK HAUTESKUNDE GUZTIETAN EMATEN DUZU BOTOA?


%	18-29 urte	≥ 30 urte
Bai, guztietan	40	54
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	22	28
Ez duzu inoiz botoa ematen	15	12
Lehenengo aldiz eman zenezake botoa (18 urte edo nazionalitatea lortu berria)	10	1
Ez duzu botoa emateko eskubiderik (atzeritarra)	13	5
Ed/Ee	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700

Gazteen % 40k dio hauteskunde-deialdi guztietan bozkatu ohi duela. % 22k adierazi du batzuetan bozkaten duela, baina ez beti. % 15ek esan du ez duela inoiz bozkaten. Gainera, % 10ek adierazi dute 2021eko hauteskundeetan lehen aldiz bozkatzeko aukera zutela (18 urte betetzeagatik edo duela gutxi nazionalitate espainiarra lortzeagatik), eta % 13k adierazi dute ez zutela boto-eskubiderik (atzerriko nazionalitatea dute).



Gazteek emandako erantzunen bilakaera aztertuta, ikus dezakegu aurreko urteekin alderatuta bozkatzeko ohiturak 2019an izan zuela beti baliorik handiena, gazteen % 44k baitzioten orduan beti bozkatzen zutela, baina 2021ean % 40ra jaitsi dela.

Botoa emateko ohituraren bilakaera 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (%)



Hauteskunde guztietan botoa ematen dutela dioten ehunekoa handiagoa da 25 eta 29 urte bitartekoen artean (% 43k dio beti ematen duela botoa) eta Bizkaian (% 43) eta Gipuzkoan (% 42) bizi direnen artean.

Botoa emateko ohitura, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai, guztietan	40	40	41	36	43	32	43	42
Batzuetan bai, beste batzuetan ez	22	21	22	22	22	23	20	23
Ez duzu inoiz botoa ematen	15	18	11	15	15	15	17	12
Lehenengo aldiz eman zenezake botoa (18 urte edo nazionalitatea lortu berria)	10	10	10	20	3	12	9	11
Ez duzu botoa emateko eskubiderik (atzeritarra)	13	11	15	6	18	17	11	12
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423


5.8. Beti alderdi politiko berari botoa ematea

ETA BETI ALDERDI POLITIKO BERTINARI EMATEN DIOZU BOTOA? *

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Bai, eta berdin jarraitzeko asmoa duzu	29	38
Orain arte bai, baina aldatzea pentsatzen ari zara	15	7
Orain arte bai, baina botoa ez ematea pentsatzen ari zara	8	10
Ez, aldatu egiten duzu hauteskunde motaren arabera	26	24
Ez, aldatu egiten duzu beste arrazoi batzuen arabera	21	20
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700


*Beti edo batzuetan botoa ematen dutela esan dutenei bakarrik galdetu zaie

Bozkutzen duten gazteen % 29k (beti edo noizean behin) esan du beti alderdi berari ematen diola botoa, eta, gainera, horretan jarraitzeko asmoa duela. % 15ek dio orain arte horrela egiten zuela, baina aldatzea edo botoa ez ematea planteatzen ari dela.



2018 eta 2021 artean boto-fideltasunak izan duen bilakaeraren azterketak erakusten digu gora egin duela botoaren destinoa aldatu dutenen ehunekoak, baita botoa ematea edo bozkatzeari uztea pentsatu dutenenak ere.

Beti edo batzuetan bozkatzen duten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen boto-fideltasunaren bilakaera (%)



Emakumeak gizonak baino leialagoak dira botoari dagokionez. Arabako gazteek ere besteek baino asmo handiagoa dute alderdi berari botoa ematen jarraitzeko.

Beti alderdi politiko berdinari botoa emateko ohitura, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai, eta berdin jarraitzeko asmoa duzu	29	26	33	29	30	34	26	30
Orain arte bai, baina aldatzea pentsatzen ari zara	15	13	17	17	14	15	14	16
Orain arte bai, baina botoa ez ematea pentsatzen ari zara	8	10	6	9	8	10	6	10
Ez, aldatu egiten duzu hauteskunde motaren arabera	26	26	26	27	26	21	30	24
Ez, aldatu egiten duzu beste arrazoi batzuen arabera	21	24	18	18	23	19	23	19
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423

*Betri edo batzuetan botoa ematen dutela esan dutenei bakarrik galdetu zaie

5.9. Botoa ematea: eskubidea ala betebeharra

BOTOA EMATEA PERTSONA BATZUENTZAT ESKUBIDEA DA, ERABILI DAITEKEENA ALA EZ; BESTE BATZUENTZAT, ALDIZ, BETEBEHARRA DA. ZURETZAT, PERTSONALKI...

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Eskubidea da	70	62
Betebeharra da	29	33
Ed/Ee	1	5
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 70ek uste du botoa ematea eskubidea dela, eta % 29k, berriz, betebeharra. 30 urtetik gorakoan artean, behera egin du bozkatzea betebehartzat jotzen dutenen aldeko eskubidea dela uste dutenen ehunekoak.

Botoa eskubide bat dela uste dute gizonek, 25 urte baino gutxiago dituztenek eta Gipuzkoan bizi direnek.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean botoa ematea eskubidea ala betebeharra den, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Eskubidea da	70	72	67	76	64	68	67	75
Betebeharra da	29	28	31	22	36	31	31	25
Ed/Ee	1	0	2	2	0	1	2	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	193	240	140	188	141

5.10. Hauteskundeetako emaitzek norberaren bizitzan duten eragina

ZURETZAT PERTSONALKI ZENBATEKO ERAGINA DUTELA USTE DUZU ZURE HERRIKO HAUTESKUNDEETAKO (UDALEKOAK, AUTONOMIKOAK ETA OROKORRAK) EMAITZEK: HANDIA, NAHIKOA, TXIKIA ALA BATERE EZ?

%		18-29 urte	≥ 30 urte
Udal hauteskundeak	Handia	22	27
	Nahikoa	32	29
	Txikia	34	26
	Batere ez	12	17
	Ed/Ee	1	1
Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde autonomikoak	Handia	24	25
	Nahikoa	34	32
	Txikia	31	25
	Batere ez	10	16
	Ed/Ee	2	2
Espainiako Diputatuena Kongresurako hauteskunde orokorrak	Handia	26	24
	Nahikoa	31	27
	Txikia	26	24
	Batere ez	17	24
	Ed/Ee	1	2
Ehuneko bertikalak		100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		433	2900

Hauteskundeetako emaitzek bizitza pertsonalean duten eraginak antzeko emaitzak eskaintzen ditu planteatutako hiru hauteskunde motetan: udal hauteskundeetan, autonomikoetan eta estatuetan. Euskadiko gazteen % 22k eta % 26k uste dute hauteskundearen emaitzek eragin handia dutela beraiengan. Pertsona horiei hauteskunde-emaitzek bizitza pertsonalean eragin handia dutela uste dutenak gehitzen badizkiegu, ikusten dugu gazteen erdiak baino gehiagok uste duela hauteskundeak irabazten edo galtzen dituenak eragina duela haien bizitzan.

30 urteko eta gehiagoko pertsonen iritziekin alderatuz gero, ikus daiteke talde horretan zertxobait handiagoa dela hauteskunde-emaitzek beren bizitza pertsonalean inolako eraginik ez dutela uste dutenen ehunekoa.

Adinean gora egin ahala, gora egiten du udal, autonomia eta estatuko hauteskunde demokratikoen pertsonalki eragin handia dutela uste duten gazteen ehunekoak.

18 eta 29 urte bitartekoen bizitzan hauteskundeetako emaitzek duten eragina, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak			
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Udal hauteskundeak	Handia	22	21	23	19	24	22	20	23
	Nahikoa	32	33	30	30	34	26	39	28
	Txikia	34	32	37	40	28	36	31	36
	Batere ez	12	14	9	10	13	14	10	11
	Ed/Ee	1	1	1	1	1	2	0	1
Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde autonomikoak	Handia	24	25	23	19	29	21	27	24
	Nahikoa	34	33	34	37	30	31	37	32
	Txikia	31	26	36	31	31	33	25	36
	Batere ez	10	14	5	9	11	15	8	8
	Ed/Ee	2	2	1	3	0	2	3	0
Espainiako Diputatuen Kongresurako hauteskunde orokorrak	Handia	26	23	29	23	28	22	28	26
	Nahikoa	31	32	29	37	25	34	26	34
	Txikia	26	23	30	26	27	21	34	21
	Batere ez	17	21	11	14	19	22	12	18
	Ed/Ee	1	1	1	1	1	2	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141	

5.11. Politikaren inguruko iritzi orokorrak

ORAIN EUSKAL POLITIKAGINTZAN PENTSATUZ, GUZTIZ ADOS, NAHIKOA ADOS, NAHIKOA AURKA, EDO GUZTIZ AURKA ZAUDE HONAKO ESALDIEKIN?

%		18-29 urte	≥ 30 urte
Alderdi politiko guztiak berdinak dira	Guztiz ados	9	16
	Nahikoa ados	27	29
	Nahikoa aurka	34	32
	Guztiz aurka	29	23
	Ed/Ee	1	1
Erreferendumak metodo ona dira gai politiko garrantzitsuak erabakitzeko	Guztiz ados	31	33
	Nahikoa ados	50	40
	Nahikoa aurka	13	16
	Guztiz aurka	5	9
	Ed/Ee	1	3
Alderdi politiko bakar batek ere ez ditu konponbide berritzaileak eskaintzen	Guztiz ados	26	34
	Nahikoa ados	45	37
	Nahikoa aurka	21	18
	Guztiz aurka	6	9
	Ed/Ee	2	2
Herritarrek benetako eragina dute gobernuek hartzen dituzten erabakietan	Guztiz ados	11	6
	Nahikoa ados	18	16
	Nahikoa aurka	45	43
	Guztiz aurka	25	33
	Ed/Ee	1	1
Ehuneko bertikalak		100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		433	2900

18 eta 29 urte bitarteko gazteak eta 30 urte baino gehiagoko biztanleak alderdi politiko guztiak berdinak direlako ideiarene aurka daude gehienbat, nahiz eta 30 urte eta gehiagoko pertsonen artean baieztapen horrekiko adostasuna handiagoa den gazteen artean baino.

Euskadiko gazteen % 81 oso edo nahiko ados dago erreferendumak metodo egokia direla gai politiko garrantzitsuak erabakitzeko. Ehuneko hori 30 urtetik gorakoen artean % 73koa da.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 71k uste du alderdi politiko bakar batek ere ez duela irtenbide benetan berritzaileak eskaintzen, 29 urtetik gorako kolektiboan erregistratzen den ehuneko bera, nahiz eta azken pertsona horiek baieztapen horrekin oso ados daudenen bolumen handiagoa duten.

Azkenik, nolabaiteko desengainua ikusten da azken baieztapena aztertzean; horren arabera, herritarrek benetan eragiten dute gobernuak hartzen dituen erabakietan. Gazteen % 29 baino ez dago baieztapen horrekin oso edo nahiko ados, hau da, baikor dago herritarren eta Gobernuaren ekintzaren arteko loturari dagokionez. Herritarrek Gobernuak hartzen dituen erabakietan benetako eraginik ez dutela uste duten pertsonen ehuneko hori are handiagoa da 30 urtetik gorako biztanleen artean.

Politikaren inguruko iritzi orokorrak 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, taldeen arabera

	%	GUZTIRA							
		Sexua		Adina		Lurralde Historikoak			
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	
Alderdi politiko guztiak berdinak dira	Gutziz ados	9	8	11	10	9	13	10	7
	Nahikoa ados	27	28	25	26	27	28	24	30
	Nahikoa aurka	34	36	32	35	32	30	39	28
	Gutziz aurka	29	27	31	28	31	27	26	34
	Ed/Ee	1	1	2	1	1	2	0	3
Erreferendumak metodo ona dira gai politiko garrantzitsuak erabakitzeko	Gutziz ados	31	34	28	28	34	24	34	30
	Nahikoa ados	50	46	55	53	46	53	46	55
	Nahikoa aurka	13	13	13	13	13	11	13	13
	Gutziz aurka	5	7	4	5	6	10	7	1
	Ed/Ee	1	1	1	1	1	2	0	1
Alderdi politiko bakar batek ere ez ditu konponbide berritzaileak eskaintzen	Gutziz ados	26	23	30	24	29	34	23	27
	Nahikoa ados	45	40	50	50	39	43	46	44
	Nahikoa aurka	21	28	13	19	23	16	22	22
	Gutziz aurka	6	6	6	5	7	5	7	6
	Ed/Ee	2	3	1	2	2	2	2	1
Herritarrek benetako eragina dute gobernuak hartzen dituzten erabakietan	Gutziz ados	11	13	9	14	8	12	11	11
	Nahikoa ados	18	19	17	22	14	15	19	17
	Nahikoa aurka	45	42	49	41	50	40	43	50
	Gutziz aurka	25	26	25	24	27	32	26	21
	Ed/Ee	1	0	1	0	1	1	0	1
Ehuneko bertikalak		100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)		433	233	200	166	267	104	188	141

Talde guztietan gehiengoaren adostasuna dago erreferendumak metodo egokia direla gai garrantzitsuak erabakitzeko, eta ezein alderdik ez duela eskaintzen konponbide benetan berritzaileak eta gehiengoaren desadostasuna alderdi politiko guztiak berdinak direla eta herritarrek benetan eragiten dutela gobernuak hartzen dituen erabakietan. 18 eta 24 urte bitarteko taldea da herritarrek gobernuaren erabakietan duten eraginean konfiantza handiena duena.

5.12. Euskadiko buruzagi politikoaren ezagutza eta balorazioa

JARRAIAN EUSKADIKO BURUZAGI POLITIKO BATZUEI BURUZ GALDETU NAHI NIZUKE. ESADAZU, MESEDEZ, EZAGUTZEN DITUZUN ALA EZ ETA, EZAGUTZEKOTAN, NOLA BALORATZEN DITUZUN, OTIK 10ERAKO ESKALA ERABILIZ, 0A BALORAZIO BAXUENA ETA 10A BALORAZIORIK ALTUENA DIRELA KONTUAN HARTUTA.

Ezagutza (%)	Ezagutza (%)	
	18-29 urte	≥ 30 urte
IÑIGO URKULLU LEHENDAKARIA (EAJ-PNV)	93	96
IDOIA MENDIA (PSE-EE)	44	72
CARLOS ITURGAIZ (PP)	38	80
MADDALEN IRIARTE (EH-BILDU)	35	49
MIREN GORROTXATEGI (ELKARREKIN PODEMOS)	30	39
AMAIA MARTINEZ (VOX)	19	20
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	8700

Gazte gehienek ezagutzen dute Iñigo Urkullu lehendakaria, eta erdiak baino gehiagok ezagutzen dituzte proposatutako gainerako lider politikoak.

30 urte eta gehiagoko pertsonak gazteek baino gehiago ezagutzen dituzte lider guztiak. Aldeak bereziki nabarmenak dira Idoia Mendia eta Carlos Iturgaizen kasuan.

Euskal liderren balorazioa 18 eta 29 urte bitarteko gazteen aldetik, taldeen arabera

Ezagutza (%)	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
IÑIGO URKULLU LEHENDAKARIA (EAJ-PNV)	93	95	91	94	93	92	94	93
IDOIA MENDIA (PSE-EE)	44	48	40	41	47	36	48	46
CARLOS ITURGAIZ (PP)	38	45	28	29	44	34	40	37
MADDALEN IRIARTE (EH-BILDU)	35	38	32	30	40	29	37	38
MIREN GORROTXATEGI (ELKARREKIN PODEMOS)	30	32	28	24	35	29	29	33
AMAIA MARTINEZ (VOX)	19	23	14	16	21	21	17	21
n (absolutuak, haztatu gabe)	1299	699	600	519	780	312	564	423

6. Balioak eta jarrera sozialak

6.1. Seme-alabentzat espero den gizarte-maila

0 ETA 10 ARTEKO ESKALA ERABILIZ, NON 0-AK MAILA BAXUENA EDO POBREA ADIERAZTEN DUEN ETA 10-AK ALTUENA EDO ABERATSA, ZEIN MAILATAN USTE DUZU EGONGO DIRELA ZURE SEME-ALABAK, EDO EGONGO LIRATEKEELA SEME-ALABARIK BAZENU, GUTXI GORA BEHERA ZUK GAUR DUZUN ADINEAN?

0-10 arteko batez bestekoa	18-29 urte	≥ 30 urte
Seme-alabentzat espero den gizarte-maila	6,4	6,6
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

18-29 urteko gazteen artean espero den gizarte-maila 6,4koa da 0tik 10era bitarteko eskalan. Gogoan hartzen badugu egungo gizarte-mailaren balorazioa 5,7koa dela, ondoriozta dezakegu Euskadiko gazteak baikor daudela etorkizunari dagokionez. Gauza bera gertatzen da 30 urtetik gorako pertsonekin, beren ondorengoentzat egungo egoeran hautematen dutena baino maila sozial altuagoa espero baitute.

Gipuzkoako gazteak dira baikorrenak seme-alaben etorkizunari dagokionez.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek seme-alabentzat espero den gizarte maila, taldeen arabera

0-10 arteko batez bestekoa	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Seme-alabentzat espero den gizarte-maila	6,4	6,4	6,4	6,5	6,3	6,0	6,4	6,8
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

6.2. Herri eta hirien segurtasunaren pertzepzioa


ZENBATERAINO ZAUDE ADOS ZURE HERRI EDO HIRIA BIZITZEKO LEKU SEGURUA DELAKO IDEIAREKIN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Gutziz ados	47	40
Gehienbat ados	49	51
Gehienbat kontra	3	6
Gutziz kontra	2	2
Ed/Ee	0	1
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Euskadiko gazteen % 47 erabat ados dago bere herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela esatean. % 49k uste du nahiko leku segurua dela, eta, beraz, Euskadiko ia gazte guztiek uste dute beren herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela.

Gazteek 30 urtetik gorako pertsonen baino adostasun-maila handiagoa dute beren herria edo hiria segurua denarekin.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 30 urte eta gehiagoko biztanleen ingurunearen segurtasunari buruzko adostasun-mailaren arteko alderaketa Euskadin (%)



Zure herria edo hiria bizitzeko leku segurua den aztertzeko, sexuaren eta adinaren arabera oso esanguratsuak dira. Elkarriketatutako pertsonen sexuaren arabera, beren herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela uste dutenen ehuneko taldekatuak antzekoak diren arren, erabat ados edo nahiko ados kategorien barne-banantzea oso bestelakoa da. Gizon gazteen % 53k uste du erabat ados dagoela bere herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela esatearekin, baina emakumeen artean ehuneko hori % 40koa da.

Fenomeno hori aztertutako bi adin-taldeetan ere gertatzen da. Horrela, ikusten dugu 18 eta 24 urte bitartekoak neurri handiagoan ados daudela herri edo hiri seguru batean bizitzearrekin. Adinean aurrera egin ahala, badirudi segurtasun-sentsazioa areagotu egiten dela.

Zure herria edo hiria bizitzeko leku segurua dela diotenen adostasun-maila, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztiz ados	47	53	40	36	55	47	46	50
Gehienbat ados	49	44	54	60	41	49	50	46
Gehienbat kontra	3	1	5	3	2	3	4	0
Guztiz kontra	2	2	1	1	2	0	1	4
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141


6.3. Pertsonen arteko konfiantza

OROKORREAN, PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKEELA USTE DUZU ALA BESTEEKIKO HARREMANETAN INOIZ EZ GARELA BEHAR BEZAIN ZUHURRAK IZATEN?

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Pertsona gehienengan konfiantza izan daiteke	41	47
Besteekiko harremanetan inoiz ez gara behar bezain zuhurrak izaten	57	51
Ed/Ee	2	3
Ehuneko bertikalak	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900

Jendearenganako konfiantza galdera baten bidez galdetzen da, eta galdera horrek planteatzen du ea konfiantza izan daitekeen jende gehienarengan edo, aitzitik, ez ote den behar bezain zuhurra besteekiko harremanetan. Eta harrigarria da 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak 30 urtetik gorakoak baino mesfidatiago agertzea. 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 41ek uste du konfiantza izan daitekeela jende gehienarengan; 30 urtetik gorakoaren artean, berriz, % 47k uste du baietz. Nolanahi ere, bi taldeetan gehiengoak uste du inoiz ez dela behar bezain zuhurra izaten beste pertsona batzuekin harremanetan jartzean.

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta 30 urte eta gehiagoko biztanleek jendearengan duten konfiantzari buruzko alderaketa (%)



Gazteek jendearengan duten konfiantzak ez du alderik elkarriketatuaren sexuari dagokionez. Hala ere, badirudi adinean aurrera egin ahala (eta bizi-esperientzian aurrera egin ahala) behera egiten duela jende gehienarengan konfiantza izan daitekeela dioten gazteen ehunekoak. Baietzapen horrekin ados daude % 47 18 eta 24 urte bitartekoen artean eta % 37 25 eta 29 urte bitartekoen artean.

Deigarria da, halaber, Arabako gazteak Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak baino mesfidatiagoak izatea. Arabako gazteen % 66k adierazi du inoiz ez dela behar bezain zuhurra izaten harremanetan; aldiz, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteen ehunekoak % 55 eta % 53 dira, hurrenez hurren.

Pertsonen arteko konfiantza 18 eta 29 urte bitarteko gazteen iritzian, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Pertsona gehienengan konfiantza izan daiteke	41	41	40	47	37	31	45	43
Besteekiko harremanetan inoiz ez gara behar bezain zuhurrak izaten	57	56	59	53	60	66	55	53
Ed/Ee	2	3	1	1	3	2	1	4
Ehuneko bertikalak	100	100	100	100	100	100	100	100
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

6.4. Erakundeekiko konfiantza

JARRAIAN ZENBAIT ERAKUNDEREKIKO DUZUN KONFIANTZARI BURUZ GALDETU NAHI NIZUKE, AIPATUKO DIZUDAN BAKOITZAREKIKO, ESADAZU, MESEDEZ, GEHIENBAT KONFIANTZA DUZUN ALA GEHIENBAT EZ DUZUN KONFIANTZARIK.

%	18-29 urte	≥ 30 urte
Unibertsitatea	85	87
Eusko Jaurlaritza	83	77
Aldundia	76	73
Eusko Legebiltzarra	75	71
Udala	71	72
Europar Batasuna	67	58
Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE)	65	61
Sindikatuak	64	41
Enpresak	62	56
Justizia epaitegiak	50	36
Komunikabideak	36	37
Espainiako Gobernua	29	33
Bankuak	26	14
Diputatuen Kongresua	23	25
Eliza Katolikoa	19	25
Alderdi politikoak	18	19
Espainiako Monarkia	11	19
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	2900


*Erakunde bakoitzean konfiantza dutenen ehunekoa

Unibertsitatea da gazteek konfiantza handiena duten erakundea, zehazki, % 85. Gehienek Eusko Jaurlaritza (% 83), diputazioa (% 76), Eusko Legebiltzarra (% 75), udala (% 71), Europar Batasuna (% 67), GKEak (% 65), sindikatuak (% 64), enpresak (% 62) eta justizia-azitegiak (% 50) hartzen dituzte konfiantzatzat. Gainerako erakundeak ez dira % 50era iristen haiengan konfiantza duten pertsonen artean.


18 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta 30 urtetik gorakoen artean erakundeekiko konfiantzari dagokionez dauden desberdintasun nagusiak Europar Batasunekoak, sindikatuetoakoak, justizia-azitegiatoakoak eta bankuetoakoak dira.

Aitzitik, 30 urte edo gehiagoko pertsonak diote gazteek baino konfiantza handiagoa dutela eliza katolikoan eta Espainiako monarkian.

18 eta 29 urte bitarteko gazteek eta Euskadiko 30 urte eta gehiagoko biztanleek erakunde bakoitzarengan duten konfiantzaren alderaketa (konfiantza dutenen %)



**18 eta 29 urte bitarteko gazteek erakundeekiko duten konfiantzaren bilakaera
(Konfiantza izateko joera dutenen %)**



	2010	2014	2016	2018	2019	2021
Unibertsitatea					78	85
Eusko Jaurlaritza	58	64	75	63	76	83
Udala	57	63	72	66	74	71
Eusko Legebiltzarra	52	52	71	60	72	75
Aldundia	58	51	64	59	68	76
Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE)	66	65	65	53	66	65
Europar Batasuna	47	39	47	48	63	67
Sindikatuak	52	38	44	36	52	64
Enpresak	48	48	49	38	51	62
Komunikabideak	36	37	37	26	42	36
Justizia epaitegiak	28	26	36	26	32	50
Bankuak			20	18	28	26
Espainiako Gobernua	26	17	20	19	27	29
Diputatuen Kongresua	19	13	17	16	21	23
Eliza Katolikoa	12	18	20	15	20	19
Alderdi politikoak	12	12	16	12	19	18
Espainiako Monarkia					14	11

2019tik 2021era nabarmen igo da unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzan, foru-aldundian, sindikatuetan, enpresetan eta justizia-auzitegietan konfiantza dutela dioten gazteen ehunekoak. Aitzitik, komunikabideekiko konfiantza murriztu egin da.

Emakume gazteek gizonak baino konfiantza handiagoa dute proposatutako erakundeetan, GKEek izan ezik. 25 urtetik beherakoek ere 25-29 urtekoek baino konfiantza handiagoa dute.

Bizkaiko gazteek dute konfiantza handiena Europar Batasunean eta haren diputazioan, eta Arabakoek dute konfiantza handiena udaletan, baita sindikatuetan ere, baina enpresekiko konfiantza gutxien dutenak dira.

Erakunde ezberdinetan 18 eta 29 urte bitarteko gazteek duten konfiantza, taldeen arabera

%	GUZTIRA	Sexua		Adina		Lurralde Historikoak		
		Gizonak	Emakumeak	18-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Unibertsitatea	85	80	90	85	84	88	84	83
Eusko Jaurlaritza	83	80	85	88	78	84	81	84
Aldundia	76	71	81	77	75	75	79	72
Eusko Legebiltzarra	75	73	78	80	70	79	72	76
Udala	71	69	75	78	65	81	67	70
Europar Batasuna	67	63	73	77	58	65	72	64
Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE)	65	67	63	71	60	60	66	68
Sindikatuak	64	59	69	69	59	70	59	64
Enpresak	62	58	66	65	59	57	63	65
Justizia epaitegiak	50	46	56	55	46	52	51	49
Komunikabideak	36	30	45	40	33	32	36	40
Espainiako Gobernua	29	27	32	36	22	32	32	23
Bankuak	26	23	29	33	19	34	19	27
Diputatuen Kongresua	23	17	29	29	17	21	26	20
Eliza Katolikoa	19	17	21	18	19	24	17	16
Alderdi politikoak	18	18	19	25	12	15	20	19
Espainiako Monarkia	11	10	13	16	7	14	11	9
n (absolutuak, haztatu gabe)	433	233	200	166	267	104	188	141

Erakunde bakoitzean konfiantza dutenen ehunekoa

7. ONDORIOAK

Gazteek positiboki baloratzen dute beren egoera pertsonala, eta balorazio horrek egonkor dirau 2018tik, Covid19 pandemia gorabehera. Halaber, nagusiki ontzat jotzen dituzte beren osasuna eta lan-egoera pertsonala.

Hala ere, Euskadiko egoera orokorraren balorazioa nabarmen jaitsi da 2019tik 2021era. Euskadiko arazo nagusiak lan-merkatuari lotutakoak dira, eta ondoren Covid19aren pandemia, egoera politikoa, arazo ekonomikoak eta etxebizitza datoz.

Nolanahi ere, Euskadiko egoera ekonomiko eta politikoari buruzko balorazioak hobetu egin dira aurreko urteekin alderatuta.

Euskadiko gazteen erdia baino gehiago pozik dago Euskadiko demokraziaren funtzionamenduari, eta are handiagoa da Euskadin giza eskubideen errespetuari pozik sentitzen direnen proportzioa. Euskadiko zerbitzu publikoen balorazio orokorra oso positiboa da, eta, gainera, gazteek etorkizunean hobetuko direla espero dute.


Eusko Jaurlaritzaren eginkizun esparruen artean ondoen baloratzen direnak turismoa, kultura eta osasuna dira; aldiz, balorazio txarrenera jaso dutenak etxebizitza eta enplegua dira. Emakume gazteak gizonak baino kritikagoak dira Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egiten duen lanarekin.

Euskal gazteek interes txikia dute politikan, eta beren posizionamendu politikoa nahiko moderatua da, bai ezker-eskuin eskalan, bai nazionalismoaren eskalan; Euskal Herriaren independentziari dagokionez ere ez dago gehiengoaren jarrerarik. Alderdi politikoekiko hurbiltasuna oso txikia da, gazte gutxi dute konfiantza alderdi politikoetan, eta horietako batek ere ez du lortzen 5a gaitzeko 0-10 eskalan, baina EH Bildu, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos hamarren batzuetara geratu dira. Hauteskunde guztietan botoa emateko ohitura nahiko zabaldua dago, eta gazteen herenak botoa ez aldatzeko asmoa du. Gehienek uste dute botoa ematea eskubidea bete beharra baino gehiago dela.

Gazte gehienek uste dute erreferendumak metodo egokia direla gai politiko garrantzitsuak erabakitzeko; izan ere, gaur egun ez daude ados herritarrek gobernuak hartzen dituen erabakietan benetan eragina izatearekin.

Beren jarrera sozialei dagokionez, gehienek uste dute bizi diren lekua bizitzeko leku segurua dela, baina pertsonen arteko konfiantzari dagokionez, gehiago dira inoiz behar bezain zurrak ez direla uste dutenak, jende gehienarengan konfiantza izan daitekeela uste dutenak baino.

Azkenik, Unibertsitatea da Euskadiko gazteek konfiantza handiena duten erakundea, Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta Eusko Legebiltzarra atzetik dituela.



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD